

Euskal Birusa Elkarre Kulturala

Aurten 20. urte bete ditu Euskal Birusak eta hori ospatzeko elkarteak bere webgunea martxan ipini zuen maiatzean. Horretaz gain, San Martin Azokari indar gehiago emateko asmoz, txerria ekarri zuten eta animalien azoka egon zen Baldespina parkean.



- Zein urtetan sortu zen taldea?

Taldea 1989. urtean sortu zen. Aurten, beraz, gure 20. urteurrena ospatzen ari gara.

- Zenbat kide zarete?

Talde eragilea 15 lagun inguruk osatzen dugu eta 287 bazkide ditugu.

-Zeintzuk dira zuen helburuak?

Euskararen erabilera sustatzea eta ermuarrei euskaraz bizitzeko aukerak eskaintzea, berau gozamen iturri dela erakutsiz.

-Zein maiztasunarekin biltzen zarete?

Hilean bi egunetan biltzen gara, astelehenetan; bilera horietan taldeak garatu behar dituen ekimenak zehaz-

ten ditugu eta bakoitzaren egin beharrekoak finkatzen dira. Horretaz gain, korreo elektronikoz ia egunero dugu elkarren berri.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Hainbat ekitaldi antolatzen ditugu. Agian ezagunena San Martin Azoka da, baina horretaz gain Hartza eguna, Udako Postal Lehiaketa, Ahozko Ondarea, Ermuan Kantuan, Berbetan Jardunaldiak, Juanita Ibaibarriaga Literatura saria, San Juan sua eta Liburu eta Disko Azoka antolatzen ditugu. Gainera hilero-hilero Drogeteniturrir Ermua eta Mallabiko aldizkaria kalera-tzen dugu (honek ere 20 urte bete di-

tu aurten). Horretaz gain, herriko beste taldeek antolatutako zenbait ekimenetan parte hartzen dugu.

- Txangorik egiten duzue?

Bai, aspaldidanik txango kulturala egiten dugu urtero San Martin Azokan kolaboratzen egoten diren talogile eta txikurixetako laguntzaileekin. Aurten, esaterako, Bermeoko Arrantzaleen museora eta Mundakara joan gara.

-Zuekin harremanetan jartzeko?

Gure bulegoa Elexosten dago (Erdi-kokale 2, 1. pisuan). Telefonoa 943179350 da, helbide elektronikoa euskalbirusa@euskalnet.net eta gure webgunera sartzeko www.euskalbirusa.org klikatu besterik ez duzu!

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaia, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78